

GOBIERNO DE NAVARRA

PRESIDENCIA, ADMINISTRACIONES  
PÚBLICAS E INTERIOR

ECONOMIA Y HACIENDA

CULTURA, TURISMO Y RELACIONES  
INSTITUCIONALES

EDUCACION

SALUD

POLÍTICA SOCIAL, IGUALDAD,  
DEPORTE Y JUVENTUDDESARROLLO RURAL, INDUSTRIA,  
EMPLEO Y MEDIO AMBIENTE

FOMENTO Y VIVIENDA

SEGURIDAD Y EMERGENCIAS

## Nafarroako Gobernuak 913.000 euro emanaz finantzatu ditu Burlatan gauzatu diren hiru inbertsio

*Jiménez Lehendakariordea bi kaletan egin duten birurbanizazioa eta hilerriaren handitzea ikustera joan da; lan horiek 2009-2012ko Tokiko Inbertsio Planaren barruan egin dituzte*

Martes, 15 de mayo de 2012

Nafarroako Gobernuak 913.335 euro emanaz finantzatu ditu Burlatako bi kaleren birurbanizazioa (Zangozako Merindadea eta Santa Barbara kaleak) eta udalerriko hilerriaren handitzea. Jarduera horietarako 1,1 milioi euro baino gehiago inbertitu da, eta 2009-2012ko Tokiko Inbertsio Planaren barruan egin dira.

Obra horien emaitza gaur goizean egiaztatu du Roberto Jiménez Allí Lehenengo Lehendakariorde eta Lehendakartzako, Administrazio Publikoetako eta Barneko kontseilariak, Burlatara egin duen bisitan.

Bisitan, Jiménez Lehendakariordeak Iturrondo industrialdean dagoen Tasubinsaren fabrika eta Burlatako Udalaren askotariko zerbitzuen eraikin berria ere ikusi ditu. Arratsaldean, adinekoen zentro berria ikusiko du eta udalbatzarekin elkartuko da.

Jimenezekin batera izan dira José Luis Izco Tokiko Administrazio zuzendari nagusia, Juan Carlos González Burlatako alkatea, José Muñoz Iruñerriko Mankomunitateko lehendakari eta herriko zinegotzia eta herriko udaletxeko beste zinegotzi eta langile batzuk.

### Egindako obren eta finantzazioaren xehetasunak

Zangozako Merindadea kalean, ibilgailuentzako bidea zolatu da egoera eskasean zegoelako eta Iruñerriko Mankomunitateak ere saneamendu-sareak berritu dituelako. 1. eta 5. atalondoen arteko espaloia ere handitu da.

Santa Barbara kalean, zenbaki bikoitietako espaloiko euri-urak jasotzeko sistema aldatu da, kalea, zeharkako malda duela-eta, urak hartzea saihesteko, eta horren sekzioa handitu da. Halaber, Asunción kalearekin lotuta dauden hiru espaloiak aldatu dira eta ibilerraztasunaren araudia betetzen duten arrapalak egin dira.

Bi kaleetan zolatzeko eta hornidurarako sareak berritzeko obrak egiteko 883.539 euro inbertitu dira, eta horietatik 689.236 euro Nafarroako Gobernuaren Tokiko Inbertsio Planaren kontura erabili dira. Gainerako zenbatekoa, saneamendu-sarearen obrena, Iruñerriko Mankomunitateak ordaindu du.

Bestalde, udalerriko hilerria handitu egin dute eta hormigoizko bideak

aldatu dira, malda egokiak jarrita. Ur-horiduraren sarea, argiak eta euri-uren saneamendua ere berritu dira. Proiektuaren kostua 224.115 eurokoa da, eta Nafarroako Gobernuak finantzatu du oso-osorik.

### **Tasubinsara eta askotariko zerbitzuen eraikinerari bisita**

Lehenengo Lehendakariordea Tasubinsa fabrikara ere joan da. Iturrondo industrialdean dago eta 165 langile ditu. Horietatik 78 Enplegu Zentro Berezikoak dira, eta % 86k urritasunen bat du, bereziki adimen-urritasuna.

Burlatako fabrikari lau enpresarentzat egiten da lana, hozkailuak egiteko behar diren osagaiak ematen eta, beste produktu eta zerbitzuen artean, etengailuak, entxufeak eta muntaketa elektrikoak egiten.

Gainera, Jiménez Lehendakariordeak Burlatako Udalaren askotariko zerbitzuen eraikina bisitatu du, 2 milioi euro baino gehiago inbertitu dira; horietatik 1.165.000 euro Nafarroako Gobernuak ordaindu ditu aurrekontuen zuzenketen bidez.

### **Adinekoen zentrori bisita eta udalbatzarekin bilera**

Jiménez Lehendakariordeak arratsaldean jarraituko du Burlatara egin duen bisita ofiziala. Berriki ireki duten adinekoen zentro berria ikustera joango da. Zentroa egiteko erabili dituzten 600.000 €-ko zenbatekoa erdi bana finantzatu dute Nafarroako Gobernuak eta udalak.

Eguna amaitzeko, udalbatza osoarekin elkartuko da Burlatako Udaleko osoko bileren aretoan. Han, zinegotzien iradokizunak eta proposamenak entzungo ditu eta Lehendakariordeak, Administrazio Publikoetako eta Barneko Departamentuaren uneko lan-ildoak zeintzuk diren azalduko du.